

KOSTUEN EGITURA

- **Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?**

Gure proiektuaren kosturik garrantzitsuenak baliabide teknologikoak eta giza baliabideak dira. Hasteko, baliabide teknologikoetan, plastikoa forma ezberdinetan moldatzen duen makina bat eta plastikoa urtzen duen makina batzuk behar ditugu eta horrek kostu handiak ekartzen ditu 80.000€ artean makina bakoitza, beraz inbertsio garrantzitsu bat da.

Jarraitzeko, giza baliabideak kostu garrantzitsu bat da enpresa batean, eskulana delako eta hilabetero soldatak ordaindu behar direlako. Hainbat gauza egiteko edo betetzeko lanpostuak daude, adibidez plastikoa jasotzen duen langilea edo marketinaz arduratzen den langilea. Beraz, diru nahikoa behar dugu lanpostu bakoitzeko langileari hilabetero dagokion soldata ordaintzeko.

Honez aparte, badaude beste kostu batzuk adibidez alokairua, materialak eta maileguak. Adibidez, maileguen kasuan dirua behar baldin badugu bankuak ematen digu baina diru hori berriro bueltatu behar dugu interesekin. Alokairua hilero ordaindu behar da eta materialak hornitzaileei ordaindu beharra dago.

